

# POLITIKA PENTSATZEA

## TOKIKO EMAKUME HAUTETSIEIEN HARRERARAKO ESKULIBURUA



VIRGINIA WOOLF

BASQUESKOLA



**EUDEL**

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



EMAKUNDE

ESTADO INDEPENDIENTE GOBIERNO VASCO

Kanpaina sufragistaren garaia  
New Jersey.  
1914aren eta 1920aren artean

*Fikzioa idatziko badu,  
emakumeak dirua behar du  
eta gela bat beretzat*

VIRGINIA WOOLF

2015eko urria

Argitaratzaileak:

EUDEL / Euskadiko Udalen Elkarteak.

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea.

Egilea

Oreka Sarea S.L.

Diseinua

LA CENTRAL, BE

Lege-gordailua

BI-xxxxxxx



BASQUESKOLA

Edwin P. Morrow gobernadorea Anthony zuzenketa sinatzen, Kentuckyn. Berretsi zuen 24. estatua izan zen. 1920ko urtarrilaren 6a



# AURKIBIDEA

● AURKEZPENA .....	06
● 1. ZERGATIK EMAKUME HAUTETSIENTZAKO ESKULIBURUA?.....	09
● 2. EMAKUMEEN AGERPENA EAEko TOKIKO GOBERNUETAN .....	12
● 3. KARGUKO ZEREGINAK GARATZEAN SORTUTAKO OZTOPOAK.....	16
● 4. ERRONKAREN GARRANTZIA.....	24
● 5. POLITIKAN EGOTEKO ETA POLITIKA EGITEKO BESTE MODU BATZUETARANTZ.....	32
● 6. GELA BAT NORBERARENA .....	36
● BIBLIOGRAFIA.....	52

Lagundu botoa  
lortzen.  
1914



# AURKEZPENA

Esku artean duzun agiriak zure bidelaguna izan nahi du udalerriko ordezkari politikoko moduan emango duzun aldian. Itsasargiaren antzeko eginkizuna dauka, haren argia gida moduan erabiltzen delako itsasontzia porturatu behar dutenentzat. Izan ere, kostaldea hurbil dagoela jakinarazten die, eta non dauden zehatz-mehatz jakiten laguntzen die. Udal-bizimoduko zereginak gehiago ezagutzen dituzten emakume hautetsiek ez dute eskuliburua erabiliko, egoera eta leku ezagunak zeharkatzen badituzte, baina haien gidaria izango da hain ohikoak ez diren toki eta uneetan daudenean. Kargua lehen aldiz euren gain hartzen duten emakume hautetsiei, ordea, tokiko hautetsi moduan garatu beharreko zeregina garatzen lagunduko dien tresna izango da.

Beraz, eskuliburu hau laguntza moduan erabili ahal izango duzu, arlo publikoan eta erabakiak hartzeko arloan hasitako etapa berri horretan. Arlo hori, hain zuzen ere, gizonentzat dago pentsatuta, batez ere, eta emakumeak geroago iritsi dira bertara. Bertatik, eskuliburu honek zenbait giltzarri eskaini nahi dizkizu, jarduera politikoa ezagutzen eta ulertzen laguntzeko. Izan ere, emakumeei zailtasun erantsiak sorrarazten badizkie ere, aukera bakarrak ere eskaintzen dizkie, euren bizi-baldintzak hobetzeko, bigarren mailara alboratzen dituzten egiturak zein ereduak eraldatzeko, eta, horren ondorioz, eredu sozial bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa sortzeko.

"Itsasargi" honen bidez, hausnarketarako zenbait elementu argiztatu nahi ditugu, baina haien asmoa ez da laburbide faltsuak erakustea, ibilbide hasi berria sustatu nahi duzun udalaren ereduaren arabera izan behar dela gogoraraztea baizik. Horretarako, oso kontuan hartu beharko duzu zer gizarte-eredu ezarri nahi duzun zure karguaren helburu diren biztanleentzat, hau da, zer ereduren bidez lortuko duzun zure udalerrira leku hobea izatea.

“Fikzioa idatziko badu, emakumeak dirua behar du eta gela bat beretzat”

VIRGINIA WOOLF

Dena dela, batez ere, eskuliburu honek gogorarazi egin nahi dizu bidaia honetan ez zaudela bakarrik, emakume kide asko izango dituzula zenbait arlo nahiz unetan, eta kontzientziaren, ausardiaren zein konpromiso partekatuaren bidez biderkatu ahal izango dituzula zehaztutako helburuak lortzeko aukerak.

Horretarako, agiri honetako lehenengo orrialdeetan, tresna hau zergatik eskaintzen dugun azalduko dugu, eta, gero, emakumeek tokiko gobernuetan duten agerpenaren diagnostiko laburra egingo dugu, 2015eko maiatzeko hauteskundeetatik aurrera. Gero, udal-politikara iristen direnean emakumeek aurkitzen dituzten zenbait oztopo izango ditugu aztergai generoa bera kontuan hartuta, askotan aurreko argazkiaren erakusgarri dira-eta. Hurrengo atalean, oster, erronkaren garrantzia eta politikan egoteko eta politika egiteko beste modu batzuen premia izango ditugu hizpide. Amaitzeko, agiriko azken atalean, emakume hautetsiak protagonista dituen politika eraldatzaile berri hau gauzatzeko zenbait estrategia izango ditugu aztergai, eta Virginia Woolfek bere lanean<sup>1</sup> aipatutako norberaren gelatik egin beharko dela azalduko dugu.

Virginia Woolf Basqueskolak gela hori eskaini nahi dizu zeharkatuko duzun bide horretan, topaketarako, ikaskuntzarako eta laguntasunerako eremua eduki dezazun.

<sup>1</sup> Woolf, Virginia. "A room of one's own" 1929.

New Yorkeko desfile sufragistako partaiderik gazteena. 1912ko maiatzaren 4a



ZERGATIK  
EMAKUME  
HAUTETSIENTZAKO  
ESKULIBURUA?

*“Geure ikusezintasuna aitortzen dugunean, agerikotasuneranzko bidea aurkituko dugu behingoan”*

MITSUYE YAMADA

Emakumeek arlo publikoan eta, zehatz-mehatz, erabaki politikorako arloetan zergatik duten agerpen txikiagoa sakon aztertzen ahalegintzen garenean, era guztietako argudio ugari azaltzen dira. Sarritan, emakumeetan eurretan oinarrituta daudenetara, erruduntzat hartzen dituztenetara eta erantzukizunak banakotzen dituztenetara jotzen dugu. Edonola ere, azterketa egokiagoa egiteko, banakako kasuetatik haratago doazen azalpenetan sakondu beharra dago, errealtatearen ikuspegi zabalagoa eta osoagoa eskainiko digutelako, politika orokorrean eta, batez ere, udal-politikan berdintasunezko partaidetza zailtzen duten egiturazko elementuak nabarmentzean.

Agiri honetan, hausnarketarako zenbait elementu argiztatu nahi ditugu. Horrela, errazagoa izango da ulertzea norberak hartutako erabakietatik haratago zergatik uste dugun beste era bateko

faktore batzuek eragin sakonagoa dutela errealtatean bertan emakumeen eta gizonen arteko alde nabariak daudela egiztatzen denean. Askotan, egiturazko faktore horiek neutralizatu egiten direnez, ikusezin bihurtzen dituzte, eta nabarmentzen dute nagusi den gizarte-eredua desberdintasunetan oinarrituta dagoela eta sexuagatik sortzen direnak direla sustraituenak eta, horren ondorioz, “naturalizatuenak”. Hori dela eta, emakumeek udal-politikan duten partaidetza generoaren ikuspegitik aztertu beharra dago, banakotasunetik taldeatasunera eta arlo partikularretik egiturazkora igarotzeko.

Horretarako, nork bere burua ikusteko eta ulertzeko, ezinbestekoa izango da gizartean “naturalizat”, “arruntzat” zer jotzen duten kolokan jartzea. Hartara, zehaztu egin ahal izango da generoaren arloko zer egiturak eta agintek baldintzatzen dituzten emakumeek eta gizonen askatasunez hartzen omen dituzten

*“Zeure sufrimenduari harresia jartzen badiozu, barrutik suntsitu ahal izango zaitu”*

FRIDA KAHLO

erabaki asko. Beraz, diagnostiko osoa egin beharra dago, erabaki-prozesua indartu eta eraldaketarako zein emantzipaziorako partaidetza politikoa garatzen duten estrategiak diseinatzeko.

Horrez gain, hori egin ezean, generoaren araberako egiturak eta aginteak zehaztu ezean, zailtasunak eta porrotak banakakotzat hartzen dira, norberaren ezintasunen eta mugen ondorioz, alegia. Hori dela eta, batzuetan, emakumeek

frustrazioz eta bakardadean garatzen dute jarduera politikoa, eta, euren bizipenak gizarteratu nahi ez dituztenez, ez dute esperientzian oinarritutako ikasbiderik sortzen. Hain zuzen ere, esperientziaz bertatik ikastea eta partekatzean, beste emakume hautetsi batzuei irekitzen zaizkie ateak, ikasbide moduan erabili ahal izateko eta elkarrekin politika egiteko beste modu baterantz eta berdintasunezkoagoak diren gizarteetarantz aurrera egiteko.

*“Gailentzeko ezinbestekoa izango da ikasi egin behar dugula gogoratzea”*

ROSA LUXEMBURGO

Bi sufragista  
botoa ematen,  
New Yorken.  
1917

# EMAKUMEEN AGERPENA EAEko TOKIKO GOBERNUETAN

Gobernu-ekintzaren helburu izango den ingurunea ezagutzea beharrezko baldintza izango da, erabaki egokiak hartzeko eta jarduera politikoa sortzen diren premiei erantzuna emateko. Emakume hautetsiek garatu beharreko lanean, une historikoak eta kokalekuak izango dute zeresan handia. Hori dela eta, ezinbestekoa izango da kasuan kasuko berezitasunak zein diren zehaztea. Agerikoa denez, ez da gauza bera udalerrri txiki bateko udalean edo hiri handi batekoan lan egitea, teknikari adituko sail sendoak dituen udal egituratua edo zenbait politika sail berean multzokatu eta langile-falta daukan udalean lan egitea eta kaudimendun aurrekontu bateratuak dituen udalean edo zor handiak dituen udalean lan egitea. Elementu horiek guztiek haien jarduera politikoa izango dute eragina, neurri handi batean.

Hala ere, ingurunearen ezagutzaz hitz egiten badugu, politiken helburu diren testuingurua eta biztanleak nolakoak diren ez ezik, politika

horiek nondik zuzentzen diren ere aztertu beharko dugu. Emakumeek eta gizonak erabakietarako zein eragin politikorako esparruetan dituzten posizioen eta baldintzen ikuspegi globala eduki beharra dago. Izan ere, lehen adierazi dugun bezala, eragin-eremutik haratago dauden egiturazko faktoreak egon arren, erabakigarriak ere badira kargua behar bezala betetzeko orduan.

Aurreko lerroetan azaldu dugun bezala, emakumeak geroago iritsi dira jarduera politiko instituzionalera, eta, aurrerapausoak aurrerapauso, erronka handiei aurre egin behar diete oraindik.

Eusko Legebiltzarrean, esaterako, 2005. urtera arte, emakumeen eta gizonen ordezkariak ez zen orekatua izan. Urte horretan, hain zuzen ere, *Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea*<sup>2</sup> onartu zen, eta oso erabakigarria izan zen agerpen orekatu hori lortzeko orduan. Legea

<sup>2</sup> Laugarren azken xedapenean, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzen du, bertako 50. artikuluan honako paragrafo hau txertatzen: "Alderdi politikoei, federazioei, koalizioei edo hautetsien elkarketek aurkezten dituzten hautagaien %50 gutxienez emakumeak izan beharko dira. Proporzio horri hautagaien zerrenda osoan eutsi beharko zaio, baita sei izeneko tartean ere. Lurralde historikoko hauteskunde-batzorde eskudunek hautagaien zat nahiz ordezkoei artikuluko honetan xedatutakoa betetzen duten hautagaitzak baino ez dituzte onartuko".

onartu zenetik, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izan da. Hori dela eta, urteen joan-etorrian joera nagusia emakumeen eta gizonen ehunekoak hurbiltzekoa izan den arren, zentzu horretan legistatu arte ez zen benetako parekotasunik lortu. Beraz, argi eta garbi dago egintza kontzienteagatik, hau da, ekintza positiboaren bitartez benetako berdintasuneranzko bidea sustatu duen erabaki politikoagatik erdietsi dela emakumeen eta gizonen agerpen orekatua benetako berdintasunerako lehenengo baldintza izatea.

EAEko udalei dagokienez, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako 3/2007 Lege

Organikoa<sup>3</sup> izan da Hauteskundeei buruzko Legean eragina eduki duena, eta, horren ondorioz, emakumeen eta gizonen agerpena orekatua da udal-politikan. Alde horretatik, azken hauteskundeei erreparatzen badiegu, 2015-2019ko legealdirako hautetsitako lagun guztiak kontuan hartuta, %41,5 emakumeak direnez, gehikuntza 2,7 puntukoa izan da 2011. urtekoaren aldean.

Nolanahi ere, alkatetzei erreparatuz gero, datuak ez dira hain onak. Kasu horretan, azken udal-hauteskundeetan emakume alkateen ehunekoa 3 puntu igo bada ere (6 puntu gehiago, 2007. urtearen aldean), gizonetik alde

<sup>3</sup> 44 bis artikuluan, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoa aldatzen da: "Honako hauexetarako hauteskundeetara aurkezten diren hautagaitzetan, emakumeen eta gizonen osaketa orekatua izan beharko da: Kongresuko diputatuak, udalak, uharteko kontseiluetako zein uharteko kabilido kanariarretako kideak (legean bertan xedatutakoaren arabera), Europako Parlamentuko diputatuak eta autonomia-erkidegoetako legegintza-batzarretako kideak. Horrela, bada, zerrenda osoan, sexu bakoitzeko hautagaien kopurua ehuneko berrogeikoa izango da gutxienez. Bete beharreko postuak bostetik beherakoak direnean, emakumeen eta gizonen proportzioa ahalik eta orekatuena izango da kopuruari begira".

zinegotzigoetan baino askoz ere adierazgarriagoa da 2015-2019ko indarreko legealdian 64 emakume alkate eta 185 gizon alkate<sup>4</sup> daudelako, hau da, %25 besterik ez.

Emakumeek karguetan duten iraupenari dagokionez, indarreko legealdian emakume alkateen %32,8k (19k, guztira) errepikatu dute karguan, gizon alkateen artean ehuneko hori %52,3koa izan denean (101, guztira).

Azkenik, zertxobait nabarmendu beharra dago emakume alkateen agerpenari buruz udalen tamaina kontuan hartzen denean. Hemen, hain zuzen ere, EAEko hiriburu guztietan emakume alkaterik ez dagoela azpimarratu beharra dago, batik bat. Udalerrri ertain eta txikietan, ordea, alkatetzetan

daukaten ordezkartzaren proportzioan dago haien agerpena.

Argazki orokor horretatik haratago, oso garrantzitsua da udal-politikara hurbiltzea eta emakumeek euren gain hartutako zinegotzi-motei erreparatzea, gehienetan ohituraren arabera esleitu dizkieten zereginekin daukatelako zerikusia (Gizarte Ongizatea, Kultura, Berdintasuna... eta ez hainbeste Hirigintza, Ogasuna...). Askotan, gainera, ez dira hain garrantzizkotzat eta esanguratsutzat jotzen gainerakoan aldean. Edonola ere, ongizate kolektiboarekin lotutako arloak dira, eta erabateko biziak edukitzean beharrezkoak diren zenbait arlotako desberdintasun sozialak konpontzen dituzten zerbitzuen eta baliabideen bitartez eskaintzen dira.

<sup>4</sup> Eskuliburu hau egin denean, oraindik eratu gabe zegoen Baliarrain.



Piketeak egiten, edozein eguraldirekin. New York. Eguneko Piketea. 1917

KARGUKO  
ZEREGINAK  
GARATZEAN  
SORTUTAKO  
OZTOPOAK

3

MR. PRESIDENT  
WHAT  
WILL YOU DO  
FOR  
WOMAN SUFFRAGE

New  
York

“Mugitzen ez denak ez ditu kateak sentitzen”

## ROSA LUXEMBURGO

### BERDINTASUNAREN IRUDIKERIA

Desberdintasunak ukatzen direnean eta garden bihurtu arte naturalizatzen direnean, jendeak emakumeen eta gizonen berdintasuna egia bihurtu dela uste du oro har. Hori dela eta, badirudi pertsona guztiek aukera eta abagune berberak dituztela baliabideak eskuratu eta esparruetara iristeko orduan, banakako gaitasunen menpe bakarrik daudelako eta desabantailan jartzen dituen testuinguruak mugatzen ez dituelako. Berdintasunaren irudikeria horren ondorioz, desberdintasunak betiketozen dira, ukatzean ez dagoelako eraldaketarako neurririk ezartzerik.

Aitzitik, eredu sozial patriarkalari buruzko hausnarketa sakona egiteko gai izanez gero, errazago ulertu eta azaldu ahal izango da emakume hautetsiek zer egoerari

aurre egin behar dieten egiturazko desberdintasun horren ondorioz.

Batzuetan, zenbait udaletako alkateak emakumeak direla ikusten dugunean, aukeraberdintasuna benetakoa dela uste dugu. Emakumeak postu horietan badaude, jakintzat ematen dugu edozein emakumek egin ahal izango duela gizon kideen baldintza berberetan. “Token women” kontzeptuaz ari gara, eta zenbait emakumeren agerikotasuna estrapolatzen du haien agerpen arrunt eta emakume guztien benetako berdintasunarekin. Horrez gain, bertara zer baldintzatan iritsi diren xehetasun handiagoz aztertzeke aukerarik edukiko bagenu, informazio gehiago izango genuke kargura heltzean gainditu behar izan dituzten ustezko generobaldintzatzaileei buruz.

“Zibilizazio patriarkaleko eraketa mental guztietan gorpuztutako falazia androzentrikoa ez da emakumeak ‘erantsita’ bakarrik zuzenduko”

## GERDA LERNER

### ● ANDROZENTRISMOA: GIZONEZKOTASUNAREN UNIBERTSALIZAZIOA ETA EMAKUMEZKOTASUNAREN IKUSEZINTASUNA

Historiari begira, emakumeak ez dira politika instituzionalean egon, baina, horrez gain, gizonezkotasuna hierarkizatu da emakumezkotasunaren gainetik, eta emakumeek arlo politikoan daukaten partaidetza berrit

oztopatzen duten bi mekanismo izan ditu atzera elikagai: gizonen diskurtsoa unibertsalizatzea, gizaki guztientzat balio bera duela ulertuta, eta emakumeen ereduak zein lorpenak ikusezin egitea.

“Mundua gizonen obra da, eta egiarekin nahasten duten ikuspegitik azaltzen dute”

## SIMONE DE BEAUVOIR

Gizonezkotasunaren unibertsalizazioaz hitz egitean, oso “gizon-profil” zehatzaren arabera nagusi den ereduaren unibertsalizazioaz ari gara: zuria, heterosexuala, heldua eta enpleguduna. Hori dela eta, emakumeenak ez ezik, beste gorputz asko ere ez datoz bat unibertsaltzat hartutako horrekin.

Gainera, arlo politikoan eta erabaki-arloan bete-beteen parte hartu duten emakumeen kopurua txikia den arren, egia ere bada bertan egon diren emakumeen ekarpenak ere badirela ikusezinoak, baina,

batez ere, abian jartzean nagusi den ereduaz zalantzan jartzen badute.

Horren ondorioz, sistema patriarkalarentzat garrantzitsuak diren jardueren arabera osatu da agenda politikoa. Ohituraren arabera emakumeei esleitu zaizkien lanak, erantzukizunak eta zereginak bigarren mailan daude, gutxietsi egiten dira eta, askotan, ikusezinak ere badira.

Adibidez, tradizioaren arabera emakumeei esleitu dizkieten zainketa eta etxeko zereginak esparru pribatuko jardueratzat

“Objektibotasuna da gizarte patriarkalean subjektibotasunari ematen zaion izena”

## ADRIENNE RICH

*“Izan ere, jateko guztiak prestatu dira, plater zein kikara guztiak garbitu dira; umeak eskolara eta mundura bidali dira. Ez da ezertxo ere geratzen; dena desagertzen da. Biografia eta historia batek ere ez dauka hari buruz zer esanik”*

## VIRGINIA WOOLF

hartu dira beti, eta banan-banan aurre egin zaie familia-esparruan bertan. Ikuspegi feministatik, ezinbestekoa da gizakien bizitzari eta ongizateari eusteko zutabeak agerian jartzea. Horretarako, dagokien balioa eman behar zaie bertan garatzen diren zereginiei, eta agenda publikoan bertan hartu behar dira kontuan bidezketasunez eta berdintasunez kudeatzeko.

Beraz, emakumeek agendaren prestaketan lan egin behar dute, arlo pribatuko dimentsio politikoa aztertzeko (“pertsonala politikoa da”), genero-aginteak kolokan jartzeko, politika beste era batera egiteko eta esparru publikoa zainketaren etikatik beste era batera begiratzeko, balioesteko eta kudeatzeko, erreferentzia unibertsaltzat hartuta eta ez bakarrik emakumeentzat.

## KULTURA POLITIKOA IRAGAZTEN DUEN BANAKETA PUBLIKO PRIBATU SOZIALA

Esparru publikoaren eta pribatuaren banaketan oinarritutako sistema norbaitek familiaren esparruan egindako lanean dago oinarrituta, eta bizitzari eusteko eguneroko zereginak eta zainketa garatzen ditu (ugalketarako lana), beste batek erabakirako zein ekoizpenerako esparruetan eragiteko astia eta askatasuna eduki ditzan (ekoizpenerako lana). Lanaren banaketa sexual horrek ondorio desberdinak ditu emakumeentzat eta gizonentzat.

Egia da emakumeek gero eta agerpen handiagoa dutela ekoizpenerako eta erabakirako arloan eta, askoz neurri txikiagoan bada ere, gizonen ere gero

eta agerpen handiagoa dutela esparru pribatuan. Edonola ere, benetako baterako erantzukizunik ez dagoenez, esparru batek bestean hartzen dituen erabakien eraginpean daudela sentitzen dute emakumeek, eta emakumeek eta gizonen ez dituzte ukoak modu berean hartzen.

Tokiko politika bizitza pribatuarekin bateraezina den ordutegirik gabeko eta erabateko arduraldi bakarrek lana omen da. Ustezko bateraezintasun horrek ez ditu ondorio berberak emakume eta gizonen hautetsientzat. Emakumeei dagokienez, bizitza pribatuan hartzen dituzten erabakiek askoz neurri handiagoan baldintzatuko

dute haien jarduera politikoa, eta, aldi berean, jarduera politikoari buruz hartzen dituzten erabakiek ere eragin handi-handia izango dute haien bizitza pribatuan eta erabakiok euren gain hartzeko moduan.

Esate baterako, emakume batzuk karguaz jabetzen direnean, familia osoaren proiektua denez, etxeko lanak eta zainketako lanak antolatuta behar dira berriro, eta, horren ondorioz, baterako erantzukizuna areagotu beharra dago.

Era berean, beste gai bat ere argiztatu beharra dago emakumeen kasuan bi esparruen artean dagoen sinbiosiari dagokionez: politika egiteko daukaten moduaren inguruan sortzen diren itzaropenak, alegia.

Emakumeak esparru publikoan sartu badira ere eta haien zeregin soziala beste era batera marrazten hasi bada ere, emakumeen zein gizonen arteko zereginen

banaketak eta genero-aginteeek bere horretan diraute, eta emakumeei eskatzen diete esparru pribatuko jardueran garatzen dituzten jarrereri eta jokabideei eusteko. Beraz, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa sexuala neurri batean desitxuratzen denean ere jokabide-ereduei eustea da helburua.

Erabakirako eta botererako postuetan emakume gutxiago egotea eta, batzuetan, emakumerik ere ez egotea ohikoa da arlo gehienetan: enpresak, instituzio publikoak, gizarte-erakundeak... Zenbat eta gorago begiratu, orduan eta emakume gutxiago daude. Aurreko atalean adierazitako datuek egiaztatu egiten digute nolako aldea dagoen emakume zinegotzien eta emakume alkateen ehunekoen artean gizonen ehunekoei dagokienez. Hori dela eta, agerikoa da udal-politikan bertan ere badagoela "kristalezko sabairik" edo "zoru irristakorrik".

*“Emakumeak aldatzeko beldurraren gatibu dira, aldatzean betiko moduko emakumeak izango ez direla uste dute-eta. Horrez gain, benetan uste dute aldatzea ezinezkoa dela, emakumeak izateko modu unibertsal bakarra dagoela, betidanik izan dela horrela eta halaxe izango dela”*


## MARCELA LAGARDE

Kultura politikoari buruz egindako zenbait azterketa<sup>5</sup> feministatan argudiatutakoaren arabera, eragin politikorako esparruak ia-ia gizonak bakarrik bete dituztenez, gizonak ohiturak eta egikerak dira nagusi. Horrela, bada, kultura androzentriko zehatzeko sinbologiak, erreferentziako ereduak, erritualak, arauak eta sinesmenak dira nagusi. Batzuetan, esaterako, eremu ez-formalek ere zeresan handia dute udal-politikako egunez egunekoan, gehiago hurbiltzeko orduan, konfiantzako harremanak ezartzeko orduan... Eremu horietan, gainera, emakumeak agerpen gutxiago dute askotan zainketako lanarekin lotutako arrazoiengatik. Beraz, agerpena funtsezko faktorea da igoera politikoari begira.

Emakumeek eta gizonak publikoan daukaten partaidetza aldaketak egiteko, aldaketa kultural sakonerako estrategiak jarri beharko dira abian. Alde horretatik, ulertu egin beharra dago kultura bera pertsonak baino lehenago dagoela eta, horren ondorioz, heredatutako osagaiak dituela eta sortzaileen balio batzuei eusten diela. Dena dela, ulertu ere egin beharra dago kultura etengabe aldatzen ari dela eta bertan parte hartzen dutenen ekarpenen bitartez eraldatzen dela. Hortik, ikuspegi horretatik, hain zuzen ere, publikoaren kudeaketan esku hartzen dutenek behar besteko konpromisoa hartu behar dute kultura hori berdintasunaren mesedetan eraldatzeko.

<sup>5</sup> San José. Begoña: De la impotencia de Antígona al empoderamiento de las mujeres en el siglo XXI. 2004.

Kapela deigarrien garaian, Harriot Stanton Blatch andrea Wall Streeteko jendetzari hitz egiten. 1915-1920



ERRONKAREN  
GARRANTZIA

“Aurrerakuntzarako gizonezko ereduak saldu duen hazkuntza ekonomikoa diruaren eta kapitalaren hazkuntza da, eta beste era bateko aberastasunen suntsipenean dago oinarrituta; naturak eta emakumeek ekoizitakoa, esaterako”

## VALDANA SHIVA

“Zergatik sartu naiz politikan? Zer eskaini nahi dut? Nolako eragina izan nahi dut udalerrian bizi direnen bizitzan? Niretzat zer arlo dira interesgarrienak? Zer helburu ditut?”.

Jakin badakigu emakume hautetsi askok horixe bera galdetu diotela euren buruari eta, batzuetan, uste baino denbora gehiago behar izan dutela galdera horiei erantzuteko. Izan ere, galdera horiei erantzuteko, sakon hausnartu beharra dago, eta norberaren burua ikusi eta ulertu egin beharra dago beste batzuek diseinatu duten eremuan. Ere, ordea, aukera bakarrak eskaintzen ditu emakume hautetsiek garatu beharreko lanaren helburu izango den udalerriko biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko.

Badago zeregin hori bakarrik eta taldean garatzerik. Aztergai dugun kasuan, oso interesgarria da

emakumeen eremu kolektiboetan galdera horiei erantzutea. Hartara, hausnartzean, esperientzia partekatua zehaztu ahal izango dira, eta funtsezkoak izango dira udalerrian kargu publikoa betetzeko erabakia zergatik hartu duten sakon aztertze orduan, etapa horretan bertako sustatzaileak izango direla kontuan hartuta.

Atal honetan, euren egoeraren eta posizioaren jakitun diren emakumeen egikera politikoaren zenbait elementu jarri nahi ditugu agerian, bidezkoagoa den gizartearen alde egiten dute-eta. Hartara, haien ahalegin handia nabarmenduko dugu, eta beste emakume batzuei emango dizkiegu etorkizun berrirako bidea elkarrekin egiteko erraztasunak.

Emakumeak esparru publikora hurbiltzen direnean, gehienek euren udalerrietako bizi-kalitatea hobetzea

*“Emakumeek arlo guztietan izan dituzten lorpen bikainek betiko isilarazi dituzte emakumeen gutxiagotasunaren inguruko argudio leloak. Batzuek, ordea, fetitxe horri eusten diote oraindik, euren agintea mehatxupean egotea gorrotatzen dutelako beste ezeren gainetik. Horixe bera da aginte guztien ezaugarria: ugazabak bere esklabo ekonomikoen gainean daukan agintea, gizonek emakumeen gainean duten agintea... Nolanahi ere, emakumeek kaiolatik ihes egiten dutenean, oinkada, urrats luzeak ematen dituzte askatasunerantz”*

## EMMA GOLDMAN

eta gizarte bidezkoagoa lortzeko lan egitea dute helburu. Edonola ere, Clara Fasslerrek<sup>6</sup> dioenez, emakumeak tokiko politikan egon arren, ez du zuzenean esan nahi generoaren ikuspegia programa eta politika instituzionaletan kontuan hartuko denik eta egikera politikoen inguruko aldaketa sakonak abian jarri eta gertatu egingo direnik. Alde horretatik, oso gogoan eduki behar dugu instituzio politikoak oso sustraituta

dauden dinamiketan zein egikeretan daudela egituratuta eta oinarrituta eta erresistentzia handia erakusten dutela edozein aldaketaren aurrean, baina, are gehiago, horren ondorioz generoaren arloko aginteak kolokan jartzen badira.

Era berean, oso kontuan hartu behar dugu emakumeak zer testuingurutan iristen diren tokiko politikerara. Instituzio politikoen zilegitasuna

*“Ez diogu geure benetako altuerari erreparatzen, harik eta zutik jarri arte”*

## EMILY DICKINSON

krisian dago gaur egun, eta sistema ekonomiko finantzarioaren beraren krisiak ere txarrera egin du. Beraz, horri aurre egiteko ezarritako neurrien ondorioz behar beste baliabiderik ez dagoenez, udal askotako politikak baldintzatuta daude erabat. Testuinguru horretan, ziur zenbait emakume hautetsik frustrazioa sentitu dutela edo, seguruenik, noizbait, frustrazioa sentituko dutela haien itxaropenak mugatuta daudela ikusten dutenean edo hasiera batean proposatu zituzten aldaketak

aurrera eramatea haien esku ez dagoela antzematen dutenean. Dena dela, testuinguru horretan ere, are handiagoak dira publikotik pertsonen bizitzaren hobekuntzan esku hartzeko eta gizarte-antolakuntza bidegabearen ondorioz sortutako arazoak konpontzeko premiak. Pertsonen bizitza eta zainketa helburu nagusitzat hartzeko premia horren aurrean, are nabariagoa da emakume hautetsiek esparru publikoan egin dezaketek ekarpena.

<sup>6</sup> Fassler, Clara: “Desarrollo y participación política de las mujeres. Argitalpen honetan: Repensar la teoría del desarrollo en un contexto de globalización”. Celso Furtadoren omenez. Vidal, Gregorio; Guillén R., Arturo. (komp). 2007ko urtarrila.

Piketearen aurrealdea.  
1917



Udal-politikan parte hartzean, jabekuntzaren<sup>7</sup> arloko esperientzia sortu daiteke etengabeko ikaskuntza kolektiborako prozesuaren bitartez. Horretarako, begirada zabaldu eta gizarte honen osagaiak izatean konturatu gabe barruraturako zenbait dinamika eta balio gauditu beharko dira. Emakumeak, gizonak bezala, menderakuntza patriarkaleko eremuan gizarteratu dituztenez, bertako aginteak ere berregiten dituzte. Hori dela eta, emakume politikari moduan gizaratean eta instituzioetan bertan proposatutako aldaketak aurrera eramanez ahal izateko, funtsezkoa da gizonen eta emakumeen eta, kasu zehatz honetan, udal-politikan bete-betean parte hartzeko erabakia hartu duten emakumeen eguneroko bizimoduan eragina duten genero-

arloko baldintzatzaileei eta aginteei erreparatzea. Horren jakitun egotea oso lagungarria da emakume-izaerarekin lotutako premiak sentitu beharrean premia horiek zehaztu eta aipatu egiten direnean eta premia horiei aurre egiteko irtenbideak diseinatu eta garatu egiten direnean. Horri esker, badago tokiko politikako testuinguru zehatz batean emakume hautetsi moduan bizitako esperientziari esanahia ematerik, arrazoiak zein diren ulertzerik eta berdintasunezkoagoa zein bidezkoagoa den gizarterako egokiagoak diren egikera politiko berriak ezartzerik.

Generoaren arloko aginteei erreparatzeko eta agintei aurre egiteko politikak proposatzeko, emakumeen interes estrategikoak kontuan hartu behar dira agenda

politikoan. Hau da, berehalakoagoak diren premia praktikoei emandako erantzunetik haratago, genero-arloko desberdintasunezko harremanen azterketaren ondorioz sortutako helburu bateratuak zehaztu behar dira, eta gizaratearen antolakuntza berdintasunezkoagoa izan behar dute xede. Interes estrategiko horien arabera, beste emakume politikari batzuekiko aliantzak sortzeko behar besteko oinarriak ezarriko dira, eta egikera politiko berrirako oinarriak sendotuko dira.

Emakumeen premia praktikoen eta interes estrategikoen artean dauden aldeak aztertzeke orduan, oso kontuan hartu beharra dago lehenengok bizi-baldintzak hobetzen badituzte ere gizaratean daukaten posizioa aldatzen ez dutela. Esate baterako, emakume politikariak agenda bateratuaren barruan proposatzen dute haurtzaindegiko zerbitzuak eskaini behar direla uztarketa zailtzen duten orduetan egindako bileretan. Horren bidez politikari lan egiteko

baldintzak errazten badira ere, ez da kolokan jartzen zainketa bera baterako erantzukizuna izan behar denik eta jarduera politikoaren ordutegiak egokienak diren ala ez, emakume zein gizon politikarien bizitza zein familia jarduera horrekin uztartzeko orduan.

Bestetik, emakume hautetsiek euren eskariak bideratu litzakete zeresan politiko handiagoa duten gizon kideen bitartez. Horren ondorioz euren mezuak igortzeko orduan dituzten baldintzek hobera egingo balute ere, ez litzateke eremu politikoan daukaten posizioa hobetuko, haien proposamenak berdintasunez defendatu daitezken. Celia Amorós-en esanetan, eremu horietan emakumeak "besaulkian eroso-eroso eseri beharrean aukiararen ertzean jesartzen direlako gertatzen da hori. Onerako nahiz txarrerako. Txarrerako, boterea erabateko inbestidurarik gabe darabilgula dirudielako: gizonen berrespen-dosi gehigarriak behar ditugu, indartzekotan".

<sup>7</sup> Beijingeko Munduko IV. Konferentziako Adierazpenean, honako hauxe azaltzen da emakumeen jabekuntzari buruz: gizarateko arlo guztietan baldintza berberetan bete-betean parte hartzea eta erabakirako zein botererako prozesuetan ere parte hartzea funtsezkoa da berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko.

Batzen dituzten interes estrategikoak beste emakume politikari batzuekin partekatuz gero, genero-arloko desberdintasunak eraldatu behar dira, eta emakumeek elkarrekin joan behar dira berdintasunezko gizarterantz. Horren bidez ez dugu esan nahi emakume guztien bizi-esperientzia berbera denik, baina emakumeak izateagatik bizi-uneak, esperientzia zehatzak eta generoaren arabera esleitu dizkieten zereginekin lotutako premiak nahiz interesak partekatzen dituzte.

Oro har, emakumeen eta, batez ere, tokiko emakume hautetsien interes estrategikoetan oinarritutako agenda bateratuak diseinatuz gero, errazagoa izango da beste emakume batzuekiko aliantzak eratzea, esperientziak partekatzea eta tokiko politiken garapenari begira aliantza horiek nolako ahalmena duten balioestea. Hartara, emakumeak eurak oso pozik egongo dira euren herriaren alde lan egiteagatik

eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeagatik, baina, horrez gain, jakin badakite emakumeen eta gizonen desberdintasunak gainditzeko moduko gizarteraren oinarriak ezartzeko lan egingo dutela. Aldi berean, gainera, beste emakume batzuei emango dizkiete erraztasunak tokiko politikan sartzeko eta euren kargua garatzeko orduan.

Tokian-tokian, genero-arloko desberdintasunen jakitun diren emakumeak daudenean, gizakien bizi-esperientzien unibertsaltasunaren ideia faltsua apurtzen da. Hau da, emakumeek udaleko ordezkari-tza-organoeetan parte hartzen dutenean, ziurtatu egiten da haien mundu-ikuskeraren erabakiak hartzeko prozesuan hartuko dela kontuan. Horrela, bada, gizona erreferente unibertsalaren balioa jartzen da kolokan guztia neurtzeko unitate moduan, eta, horrez gain, egikera politiko tradizionaleri ere botatzen zaie erronka.

*“Benetan barregarria da gizon baten lana norberaren gain hartzea emakume batek egin duela esateko bakarrik. Zereginari zurea delako eta garatu egin nahi duzulako ekitea da zentzuzko arrazoi bakarra”*

## DOROTHY SAYERS

Egikera berriak ezartzean, “irabazi eta galtzeko” jokoa oinarri duen “joko politiko tradizionalen” sustraitutako dinamikak jartzen dira kolokan, eta aliantzetan zein adostasunean oinarritutako egikera politikoak sustatzen dira. Gainera, egikera politiko horiek emakume eta gizon hautetsientzat balioetsi beharko lirateke.

Horrez gain, emakumeek esparru politikoan daukaten partaidetzak, haien premia praktikoak zein interes estrategikoak agenda publikoan sartzeko prozesuak, negoziaketak eta aliantzak sorrarazten dituen adostasunak ateak irekitzen dituzte, genero-arloko baldintzatzaileengatik arlo publikoan parte hartzen ez zuten beste emakume batzuek lerrokatzeko moduko erreferenteak eta euren agintearen helburua diseinatzeko moduko agenda berriak eduki ditzaten.

Emakume hautetsiak emakume askoren borrokari, lanari eta konpromisoari esker iritsi ahal izan dira kargura. Izan ere, feminismoaren era guztietako uholdeetan, bozkatzeko aukera izan dute lehendabizi; eta bozkatuak izatekoa, ondoren. Mary Wollstonecraftek (1759-1797) “emakumeen eskubideak” “gizonen eskubideen” aldean aldarrikatu zituenetik, hari eta botorako eskubidearen aldeko borroka sufragistak gertatu ziren arte, hainbat eta hainbat emakumek aurrera egin dute emakumeen partaidetza soziopolitikoan. Hori dela eta, neurri batean, genealogia feminista hori aitortzen denean, hurrengo emakumeentzako lorpen berriak ere eskaintzen dira, eta, horren ondorioz, beste aurrerapauso batzuk ere ematen dira berdintasunerantzko bidean.



Sufragistak informazio-orriak banatzen 1913ko martxoaren 3ko desfile sufragistari buruz

# POLITIKAN EGOTEKO ETA POLITIKA EGITEKO BESTE MODU BATZUETARANTZ



*“Emakumeek dihardutenean, ez dute gizonen boterean parte hartzen, boterearen kontzeptua bera jartzen dutelako kolokan”*

CARLA LONZI

Ez dugu politikan egoteko eta politika egiteko beste modu batzuei buruz hitz egiterik, esentzialismoei erreparatzen badiegu eta oso kontuan hartzen ez badugu emakume hautetsien mugimendurako egituren eta euren ezaugarrien ondorioz erabat anitzak direla, gertaerak nahierara bizi dituztela eta, batzuetan, topo egiteko aukerarik ez dutela edo topo egin nahi ez dutela. Edonola ere, egoerak, oztopoak eta, batez ere, agenda partekatzean eta hori guztia mahai gainean jartzean, errazagoa da emakumeak izateagatik abian jartzen diren mekanismoak zein diren zehaztea eta zer erronka partekatzen dituzten jakitea. Hartara, hortik aurrera, norberak aukeratuko du zer eremu den onena egoerei aurre egiteko eta bere kargua ahalik eta modu onenean garatzeko.

Hori argitu ostean, oso kontuan ere hartu beharra dago sarritan sistema bera, aldaketak ekiditeko estrategia moduan, aldeak nabarmentzen

saiatzen dela eta emakumeak izateagatik emakume hautetsiek partekatzen dutena ezkututzen ere bai. Hori dela eta, hasiera batean, baliteke erraza ez izatea emakume hautetsiek emakume moduan partekatzen dituzten interes estrategikoak zein diren zehaztea, nahiz eta oso suspergarriak izan euren arteko aliantzak ezartzeko orduan. Dena dela, agenda bateratu hori taldean eratzen dutenean egingo dute aurrera, eta karguaren garapena errazteko moduko egikera eta egokera politiko berriak ezarri ahal izango dituzte.

Emakume hautetsiek partekatzen dituzten interes estrategikoak zehazteko (agenda politiko eraldatzailea ezartzeko oinarria direla kontuan hartuta), jabeakuntzarako prozesua garatu beharra dago. Hau da, prozesu horren bitartez, emakumeek autonomia handiagoa eta haien bizitzan nahiz beste emakume batzuen bizi-baldintzetan

*“Nire guraria ez da emakumeek gizonen gaineko boterea edukitzea, euren buruaren gaineko boterea izatea baizik”*

## MARY WOLLSTONECRAFT

eragina duten erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa izango dituzte. Hartara, boterea eraldatu eta emakumeen zein gizonen artean birbanatuko dute, azken batean.

Prozesua izango balitz bezala hitz egiten dugu jabekuntzaz. Lehenengo eta behin, hain zuzen ere, banakako mailan erreparatu beharra dago; eta, ondoren, maila kolektiboan. Horrela, eredia eta botere-harremanak eraldatzea izango da azken helburua.

Banakako mailan generoari erreparatzeko giltzarrietakoa da zer gertatzen den ulertzea eta testuinguru zehatzean lekuratzea. Horretarako, bertan eragina duten genero-arloko faktoreak aztertu behar dira. Errealitatea bera testuinguruaren arabera ulertzean, are elementu gehiago edukiko ditugu, genero-arloko harremanen inguruko kontzientziazioa handiago izateko eta emakumeen eguneroko bizimoduan nolako eragina duten jakiteko. Banakako jabekuntzak begirada zabaltzen duenez, badago

ingurune hurbila beste ikuspegi batetik interpretatzerik eta emakume hautetsiek frustrazioa, segurtasun-falta, aitortpen-falta... zer egoeratan sentitzen duten zehazterik. Sentipen horiek, gainera, haientzat arrotzak diren egikera politikoengatik sortzen dira, eta, horren ondorioz, egikera horiek eraldatzeko ondoezak dituzte.

Banakako mailako jabekuntzarako prozesuari esker, badago politikariek egiterik, baina, horretarako, egoera horiek sorrarazten dituzten ondoezak zein diren zehaztu beharra dago, hau da, izena jarri behar zaie, adierazi egin behar dira eta emakumeak bigarren mailara baztertzen dituen sistemaren beraren osagai moduan ulertu behar dira.

Nolanahi ere, kontzientziazteko banakako prozesu hori maila kolektiborantz bilakatu behar da eraldatzeko ahalmena edukitzeko. Jabekuntzarako prozesuetan, beraz, kolektibotasunak funtsezko zeresana izango du: hierarkikoak eta simetrikoak ez diren harremanetatik

beste emakume batzuekin partekatzea eta begirada berria eduki ahal izatea esperientziak zein sentipenak beste ikuspegi batetik interpretatzeko, jabekuntzarako prozesuan bertan eman beharreko ezinbesteko aurrerapauso moduan. Emakumeek “emakumeon” kontzientzia kolektiboa sortu dezaketela diogu, eta, horretarako, beste emakume batzuekin batera hausnartu behar dute, partekatutako helburuak nahiz xedeak zein diren zehazteko. Hori dela eta, elkarrekin zer gizarte-eredutarantz abiatuko

diren erabakitze adostasuna lortu beharko dute. Batzuetan, gutxienezkoen adostasuna izango da; eta, beste batzuetan, gehienezkoena.

Jabekuntzarako prozesuetako maila kolektiboaz hitz egitean, ageri-agerian jartzen da nolako ahalmena daukaten eraldatzeko orduan. Gure iritziz, beraz, aldaketarako banakako prozesuak ez dira nahikoak izango aldaketa sozial zein politikoen lorpenari begira emakumeen ekintza kolektiboa sustatzeko neurriak ezartzen ez badira.

*“Den-dena gizonezkotasunetik pentsatuta eta egituratuta dago. Batzuetan, nahiz eta emakumeek agindu, ez da kontuan hartzen badagoela beste era batera agintzerik”*

## GEMMA CERNUDA

San Franciscoko sufragista ordezkarien harrera New Jersey, Washingtoneko Kongresura bidean, 500.000tik gora sinadurako eskaera bat aurkeztera doazela.  
1915

## GELA BAT NORBERARENA

“Askatasuna ikasteko, erabili egin beharra dago”

## CLARA CAMPOAMOR

Haien eragin-ahalmena zehazten eta mugatzen duten elementuak zein diren aurretiaz aztertu gabe eredu ideala helburu daukan jarduera politikoa proposatzen dutenean, emakumeek frustrazioa sentitzen dute, eta baliteke haien helburuak ere desitxuratuta geratzea. Berdintasunezkoagoa eta bidezkoagoa den gizarte zein harreman eredu sorrarazten duen jarduera politiko eraldatzailea xede nagusia bada, utopia lortezin bihurtuko da, norabide horretarantz abiatzeko tresna eskuragarriak behar bezala doitzen ez badira. Gida honek emakume politikariak helmugara iristeko erabili ditzaketen tresnak argiztatzeko itsasargia ere izan nahi du.

Atal honen helburua, ordea, ez da errezeta magikoak eskaintzea, zenbait estrategia biltzea baizik. Izan ere, beste emakume batzuen esperientzietan oinarrituta daudenez, erabilgarriak izan daitezke jarduera

politikoa garatzeko orduan. Estrategia horiek, hain zuzen ere, lehenago agiri honetan aipatutako oztopoak gainditzeko tresnak izango dira. Beste emakume batzuen esperientzietan oinarritutako estrategia horiek identifikatu ahal izan ditugunez, argi eta garbi dago egoera bera aldatzen hasi dela, politikan beste era batera egoteko eta egiteko esperientziak daudela eta eredu berri horiekin bat egitean aldaketa eraldatzaileetarako bidea sendotzen dela. Hortik, saiakuntzak egin beharko dira, eta guztiak egoera zein errealitate dinamikoen ondorioz sortu direla ulertu beharko da. Hori dela eta, ez dira unibertsalak izango, eta testuinguruaren arabera balioetsi, moldeatu, egokitu eta ezarri egin beharko dira.

Halaber, nabarmendu beharra dago hemen proposatutako estrategiak erabilgarriak izango direla jarduera politikoa emakume hautetsi moduan garatzeko eta emakumeen eta,

oro har, herritarren egikera ere arautzeko. Oso gomendagarria izango litzateke instituzioek behar besteko baldintzak sortzea haien karguaren helburu izango den udalerrian bizi diren emakumeen mesederako ere jarduteko. Hartara, emakumeen jabekuntza helburu duten politiken bitartez, aldaketarako eragile aktiboak izango dira emakume hautetsiekin batera.

Atal honetan, Virginia Woolfen ideiari helduko diogu berriro. Izan ere, nork bere gela eduki behar zuela zioen, gizonena izan ohi den erabaki-gunera heldutako emakume-izaera

horretatik proposatu behar direlako behar besteko estrategiak, jarduera politikoa garatzeko eta emakumeek zein gizonek gure udaletan dituzten baldintzak eta posizioak parekatzeko.

**Nola, bada?**

Gure proposamena hiru jabekuntza-mailen arabera dago egituratuta (banakakoa, kolektiboa eta eraldaketarakoa), eta, horrez gain, haiekin lotutako faseak ere zehazten dira. Hartara, badago eraldaketarako prozesu kontzienteak egituratzerik, banakako prozesuetan eta prozesu kolektiboetan oinarritutako ekintza sustatzeko.

*Honako hauexek dira proposatutako faseak:*


*Sentitzea -> Jakitea -> Ahal izatea -> Nahi izatea -> Egitea*

*“Nire ustez, edozein adinetan matxinatzeko adorea duten emakumeak dira bizitza sustatzen dutenak..., matxinoak dira eskubideen mugak hedatzen dituztenak, apurka-apurka..., gaizkiaren mugak estutu eta desagerrarazi egiten dituztenak”*

## NATALIE C. BARNEY

Sentitzeko eta jakiteko faseak banakako mailaren inguruan egituratuko ditugu, haien ondorioz gainditu beharreko egoerari erreparatu behar zaiolako eta zergatik sortu den jakin beharra dagoelako. Ahal izatea eta nahi izatea, ostera, dimentsio kolektiboan proposatuko da, ekintza bateratuaren eta interes estrategikoen egituraketaren

ondorioz ezarriko direlako aldaketa eraldatzailea lortzeko borondaterako eta egiteko faserako beharrezkoak diren baldintzak. Aldaketa hori, gainera, emakume bakoitzaren egoera pertsonaletik haratago joango da, eta emakume guztiek tokiko politikaren garapenean dauzkaten baldintzak eta posizioa hobetuko ditu.



## BANAKAKO MAILA

Hasteko, eraldaketarako prozesuko lehenengo bi faseak izango ditugu aztergai, oso lagungarriak izango direlako testuingurua ulertzeko, bertan lekurtzeko eta gizarte-egitura zapaltzailean kokatzeko orduan. Hori dela eta, horren arabera jarduteko motibazioa emango dutenak izango dira. Sentitzeko eta jakiteko faseak aldi berean eman daitezke, sentitzeko fasea jakiteko fasearen ondorioa delako (zenbat eta gehiago jakin sistema heteropatriarkalaren ondorioei buruz, zenbat eta gehiago jakin genero-arloko aginteek emakumeen zein gizonen bizitzan sortzen dituzten ondorioei eta mugei buruz, orduan eta gehiago

sentituko dugu), baita jakiteko fasea sentitzeko fasearen ondorioa ere (zenbat eta gehiago egon errealitate horren eraginpean, orduan eta gehiago sentituko dugu, orduan eta gehiago jakin nahi izango dugu bertan eragina duten faktoreei buruz). Sentitzeko fasean, oso garrantzitsua izango da emakumeen oinazeei eta kalteei entzutea eta agintea ematea, helburu nagusia ulertzeko eta eraldatzeko bilaketari ekitea bada.

Beraz, egin ahal eta nahi izateko eta, horren ondorioz, jarduteko eta eraldatzeko premisak izango dira kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.

*“Bizitzan, ezin gara ezeren beldur izan. Ulertu besterik ez dugu”*

## MARIE CURIE

### Horretarako, badago jakintzatik abiatzerik...

Emakume askoren iritzi, behar bezala prestatu beharra dago politikan jarduteko. Alde horretatik, emakume hautetsi gehienentzat zailtasun erantsia da euren erantzukizun ugariak uztartzeko zailtasunen ondorioz behar beste denbora ez edukitzea. Arlo publikoan (gainerako gizon eta emakume politikari kideekin, estrategia kolektiboagoen bila) nahiz arlo pribatuan (zainketako zereginak negoziatzeko eta irtenbide praktikoak bilatzeko), zailtasun hori agerian jarri beharko litzatekeen arren, oso kontuan ere hartu beharra dago ikaskuntza etengabeko prozesua ere badela eta haren iturriak zein edukiak identifikatu behar direla ohiko eraketetatik haratago. Hartara, politika zehatzak lantzeko orduan, hobeto lekurtzeko tresna lagungarria izan daiteke gai hori jorratzen duten pertsonekin

edo taldeekin erkatzea. Horrela, bada, eduki badituzten udaletako teknikariek, euren ekintzaitzazatik arloa ezagutzen duten taldeek eta egoera berean egon diren erreferentziako beste pertsona batzuek ekarpenak egin ahal izango dituzte neurri handi batean, eta oso lagungarriak izango dira helburu zehatzak azaltzeko eta lekurtzeko orduan.

Jarduketa-eremua zein den eta zenbait udal-sailetan egindako lana garatzean zer aukera sortzen diren jakinez gero, badago behar besteko plangintzak egiterik, legealdian jarraitu beharreko bidea zein den zehazteko eta plangintza hori garapenerako premien arabera egokitzeko moduko tresnak eduki ahal izateko. Edonola ere, oro har eskuratu dezakegun jakintzan ez da generoaren azterketa kontuan hartzen. Karguaren helburu izango den udalerriko emakumeen eta gizonen egoera zehatza zein den jakitea funtsezkoa

da politika egiteko orduan. Ustezko desberdintasun-kotak identifikatzeko orduan sexuaren arabera banatutako datuak eta informazioa edukiz gero eta garatu beharreko politiken eraginari buruzko aurretiazko adierazleak edukiz gero, kasuan kasuko plangintzetan behar besteko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko.

Virginia Woolf Basqueskolak jakintza hori eskuratzeko aukera ematen du, generoaren ikuspegitik udal-politikarekin lotutako zenbait gaitara hurbiltzeko mintegien bitartez. Horrez gain, tokiko politikarekin eta emakumeekin lotutako gai ei buruzko jakintza ere sortzen du bere azterketa-lerroaren bidez.

Jakintza-mota hori ez ezik, zeregin politikoa garatzeko

trebetasunen arloko prestakuntza ere bada funtsezkoa. Hain zuzen ere, komunikaziorako teknikak dira horren erakusgarri. Lehen aitatu dugun lanaren banaketa sexualaren eta gizarteratzeko prozesu bereziaren ondorioz, zenbait emakumek esperientzia gutxi eta zailtasun gehiago dituzte jendaurrean hitz egiteko orduan. Kasua hori izanez gero, genero-arloko baldintzatzaileak agerian jartzen laguntzeko teknika zehatzak ikastea ere bada estrategia eraginkorra, praktikarekin batera igorriko denarekin bat datorren komunikazio-eredu eraginkorra garatzeko orduan.

Trebetasun horiek eta beste batzuk, lidergoa, esaterako, Virginia Woolf Basqueskolaren eskaintzaren bitartez jorratzen diren gaiak ere badira.

*“Emakumeek lur honetan etxean daudela sentitu behar dute, Rosa Luxemburgo edo Madame Curie bezalako emakumeak agertzeko. Bikaintasunez egiaztatzen dute ez dela emakumeen gutxiagotasuna historian duten ezerezkeria zehazten duena: hain zuzen ere, historian duten ezerezkeriak kondentatzen ditu gutxiagotasunera”*

## SIMONE DE BEAUVOIR

### Horrez gain, badago ereduak eta erreferenteak bilatzerik...

Funtsezkoa da herritarren bizi-baldintzak hobetzeko asmoz eta emakumeen zein gizonen berdintasuna lortzeko asmo eraldatzaileaz arlo publikoan diharduten emakume erreferenteak ezagutzea. Egikera desberdinak egon dira betidanik, eta, inoiz ikusi eta balioetsi ez direnez, lausotu egin dira. Lidergo-eredu eraldatzaileen bilaketaz ari gara, pertsonak dituzte oinarri eta desberdintasunen inguruko kontzientziaren eta haien aurkako borrokarako konpromisoaren ondorioz sortu dira. Lidergo berriei buruz hitz egiteko,

lidergoa zenbait lagunen ezaugarri “berezi” eta “ezohikoen” ondorioz sortutako zerbait dela adierazten duen ideia baztertu beharra dago behingoan. Horrez gain, beste emakume batzuekin lidergoak partekatzea eta emakumeen zein gizonen berdintasuna sustatu duten ereduak agerian jartzea oso tresna lagungarria ere izan daiteke gure lanari begira.

Virginia Woolf Basqueskolak buletina egiten du aldian-aldian. Bertan, hain zuzen ere, emakumeen esperientziak azaltzen direnez, erreferentetzat hartu daitezke. Gainera, mediateka ere badago bertan, eta emakumeei

Frances Pepper  
(ezkerrean) eta  
Elizabeth Smith  
(eskuinean)  
*The Suffragist*  
egunkariaren  
bulegoan lanean.  
1913-1921



egindako elkarrizketak bistaratu daitezke, politika orokorrean eta, batez ere, tokiko politikan egoteko eta politika egiteko beste modu batzuen argigarri. Beste emakume batzuei bidea erraztu ahal dietela kontuan hartuta, mentoringa

eta antzeko metodologiak tokiko politikan esperientzia duten emakumeekin arakatzean, ez dago behin eta berriro ezerezetik zertan abiatu, eta badago beste emakume batzuen esperientziari onura ateratzerik.

*“Autozainketaren ondorioz, geure buruari jartzen dizkiogu mugak, eta, horrez gain, jakin ere badakigu ahalguztidunak ez garela eta eraldatu nahi ditugun desberdintasun guztiak modu kolektiboan jorratu behar direla. Geure buruan pentsatzea arriskutsua bezain urratzailea da patriarkatuarentzat, “martirologioaren” logika hausten du-eta”*

ANA MARÍA HERNÁNDEZ

#### eta autozainketa abian jartzerik...

Oinarritzakoa eta elementu logikoen arabera dela dirudien arren, batzuetan emakumeek lehentasuna ematen diote ingurunearen zainketari, eta ez diete euren premiei aurre egiten. Halakoetan, genero-arloko aginteek ez dute inolako eraginik emakumeen artean, gainerakoek zerbitzura jartzen direlako euren ongizateaz arduratu gabe. Bestetik, ez dira konturatzen azken horiei eman behar zaiela erantzuna, beste zeregin batzuk euren gain hartu ahal izateko. Denboraren erabilerari buruzko azterketetan<sup>8</sup>, egiaztatu egin da emakumeek denbora

gutxiago ematen dutela euren burua zaintzen eta aisialdiaz gozaten, estereotipoen arabera aurkakoa gertatzen dela badirudi ere. Baterako erantzukizunik ez dagoenez, zainketako zereginen ondorioz sortutako karga omen da arrazoi nagusia.

Emakume hautetsien agenda bateratuan zaintzea eta biziari eustea agenda politikoa egituratzen duen elementua izango balitz, oso egokia izango litzateke maila pertsonalean bertan ere ezartzea. Norberaren zainketa eta banakako ongizatea ezinbesteko elementuak dira zeregin politikoa behar bezala garatzeko orduan.

<sup>8</sup> Emakunderen txostena: “Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zenbakiak

*“Bilbadura feministak hainbat korapilo eta begizta ditu osagai, eta modu antzemanezinean daude ehunduta ordena patriarkaleko kontrolatzaileen begientzat”*

MARCELA LAGARDE

## ● MAILA KOLEKTIBOA

Gela geure burua aurkitzeko asmoz darabilgunean, esan gabe doa geure inguruneari beste begi batzuek begiratuko diogula eta, zabaldutako begirada horretatik, beste emakume batzuk aurkitu ahal izango ditugula, bidean esparru hori partekatzen gonbidatzeko. Norberaren esparruak partekatzen direnean, hain zuzen ere, behar besteko baldintzak sortzen dira helburu ditugun aldaketa eraldatzaileetarako.

Emakumeen arteko sareak sortu behar dira, helburu bateratuen inguruko sareak sortu behar dira, emakumeen baldintzak zein

posizioak hobetzeko eta gizarte zein harreman eredu bidezkoagoak bilatzeko. Hau da, genero-arloko interes estrategikoen inguruko sareak sortu behar dira, aurreko orrialdeetan azaldu dugun bezala.

Hona iritsita, azpimarratu beharra dago harremanetarako eredu alternatiboak hartu behar direla kontuan, politika instituzionalean emakumeen arteko sareak sortzen direnean dinamika alderdikariak hausten direlako goitik behera.

Puntu honetan, azterketa oso bezain zintzoa egin behar dugu, benetan hausten dena genero-arloko agintea dela ikusi ahal izateko.

*“Emakumeak gehiago saiatzen dira gizonekin dituzten harremanak hobetzen. Dena dela, emakumeen arteko harremanak aldatzea da garrantzitsuena”*

KATE MILLET

Haiatzat zapaltzaileak diren eredu eta sistematarako alternatiben bila, haien interes estrategikoei erantzuteko asmoz, sareak emakumeen euren artean sortzen direnean, erresistentziak biderkatu egiten dira.

Sareen sorrera hori ez dugu esentzialisotik ulertu behar, ez dugulako hizpide sexu batetik edo bestetik sortzen diren. Gure esanetan, emakumeak helburu bateratuen inguruan elkartu behar dira genero-arloko aginteak kolokan jartzeko, aginte horiek emakumeak nahiz gizonak hesitzen dituztelako eta emakumeak zapaldu eta bigarren mailara baztertzen dituztelako.

Norabide horretarantz doan ahalegina eginez gero, errazagoa izango litzateke berdintasunerako politika eraldatzaileen inguruko

sareak sortzea eta pertsonen bizi-baldintzen hobekuntzarako ezinbestekoak diren politiken inguruko adostasunak erdiestea.

Horrez gain, sareak sortzeko, emakumeen aniztasuna ulertu eta errespetatu egin behar da, errespetatzeko eta entzuteko urratsak ezarri behar dira, konfiantzako eremuak sortu behar dira eta zainketarako irizpide etikoei erantzun behar zaie.

Premisa horretatik abiatuta, Virginia Woolf Basqueskolak tokiko emakume hautetsien topaketa sustatzen du euren jabekuntza lortzeko eta berdintasunerako politika eraginkorrak balioesteko gaien inguruan. Horren bitartez, emakume politikarien sareen sorrera bultzatu nahi du agenda bateratuen diseinuaren inguruan.



“Ahizpatasuna feminismo garaikideko dimentsio etiko, politiko eta praktikoa da. Emakumeen esperientzia da, eta beste emakume batzuekin harreman positiboak nahiz aliantza existentzial bezain politikoa bilatzea dauka helburu, gorputzez gorputz, subjektibotasunez subjektibotasun, ekintza zehatzen bitartez gizarteko era guztietako zapalkuntzak desagerrarazteko, emakume guztien botere generikoaren lorpenerako elkarrekiko laguntza edukitzeko eta emakume bakoitzaren bizi-jabekuntza erdiesteko”

MARCELA LAGARDE

“Benetako gizarte-aldaketa ez da inoiz iraultzarik gabe gauzatu. Pertsonak ez dute euren historia ezagutzen, edo oraindik ez dute ikasi ekintzara eramandako pentsamendua dela iraultza.”

EMMA GOLDMAN

## ERALDATZEKO MAILA

Emakumeen genero-erloto azterketarako eta kontzientziaziorako prozesua sustatzeko berezko eremua edukitzea, eremu hori beste emakume batzuekin partekatzea eta politika eraldatzaileak egiteko estrategiak zehaztea ez litzateke nahikoa izango, helburua bera gizarte-eredua eraldatzea izanez gero. Prozesu horrek, gainera, eragina izan behar du udalek arlo publikoan garatutako kudeaketan. Sare horien lana eta herritarren bizi-baldintzak hobetzen dituzten politiken inguruko hitzarmenak nahiz adostasunak erabakiak

hartzeko gunera eraman behar dira, negoziatu egin behar da eta diseinuan parte hartu ez dutenenekin erkatu beharra dago, ahal dela, haien inplikazioaren bila.

Berdintasunezko politiken azalpen horretan, euren ekintzailatzatik eta jardun politikotik egikera horiekin bat egiten duten kideak ere identifikatu behar dira, emakumeentzako zein gizonentzako gizarte-eredu bidezkoagoa ere bultzatzen dutelako aliantzen sorreraren bidez. Aldi berean, ordea, oso kontuan ere hartu beharra dago behar besteko dinamikak ezarri behar direla, egikera horrek

Mary Winsor,  
katzelatutako sufragisten  
aldeko kartel batekin.  
Pensilvania.  
1917

*“Funtsezkoa da sarean lan egitea, emakumeok elkarri laguntzea, informazioa trukatzeko, nazioarteko protestaldietarako deia egitea, geure lana neurri handiagoan agerian jartzea eta gizon feministekin, queerrekin eta mundu hobearen aldeko gizarte-mugimendu guztiak lan egiten hastea. Sarea etorkizuna da herrialde zapaltzaileen artean ere lotzen gaituelako guztiok. Planetako kultura gehienetan desberdintasuna fenomeno globala denez, horren aurkako borroka eta desagerrarazpena ere izan behar dira globalak”*


## CORAL HERRERA

gainerakoen artean sortu dezakeen mesfidantza hausteko. Izan ere, dinamika tradizionalagoetatik eta baztertzailagoetatik arlo publikoa kudeatzeko eredu horrek nolako ahalmenak dituen ez dakiten pertsonak edo, hori jakinda ere, ahalmen horiek sustatzen ez dituzten pertsonak ditugu hizpide.

Jende gehiagori eman beharko diogu geure gelan hitzartutako estrategien berri, berdintasuna, ahizpatasuna eta antzeko gaiak administrazioetako agenda politikoetan kontuan hartu daitezela. Horrela, bada,

jardun demokratizatzaileak eta kontzientziatorako nahiz jabeakuntzarako prozesuak sustatu ahal izango dira herritarren artean.

Basqueskolak norberaren gela hori izan nahi du, banaka ohartarazteko, jakinaren gainean errazago egoteko, sareak ezartzeko, emakume politikarien zein berdintasunerako tokiko politiken interes estrategikoen inguruko agendak diseinatzeko eta tokiko politika eraldatzaileen lorpenerako eragina edukitzeko.



# BIBLIOGRAFIA

- **Cirujano Campano, Paula;** *La estrategia demorada. Género y cooperación internacional en España*; Los libros de la Catarata; 2005
- **Fassler, Clara;** *"Desarrollo y participación sociopolítica de las mujeres"*. Repensar la teoría del desarrollo en un contexto de globalización; Homenaje a Celso Furtado. Vidal, Gregorio; Guillén R., Arturo. (comp); 2007
- **Gracia de León, M<sup>a</sup> Antonia;** *Élites discriminadas*; Editorial Anthropos; 1994
- **Martínez Ten, Luz y Escapa Garrachón, Rosa;** *Guía de formación para la participación social y política de las mujeres*; Junta de Extremadura; 2007
- **Martínez, Jone; Ahedo, Igor; Suso, Alicia;** *Innovaciones democráticas feministas*; Beca de investigación del Instituto Vasco de la Mujer, Emakunde; 2014
- **San José, Begoña;** *De la impotencia de Antígona al empoderamiento de las mujeres en el siglo XXI*; Encuentro Agrupación de Desarrollo del Proyecto EQUAL Mass Mediación y la fundación Isonomía; 2004
- **Navarro, Natalia;** *Mainstreaming de género y cambio organizacional pro equidad de género*; Políticas que transforman, PNUD; 2005
- **VV.AA.;** *El proceso de empoderamiento de las mujeres. Guía metodológica*; Comisión de Mujeres y Desarrollo; 2007